

MULTIABENTURA UDALEKUAK 2026 BAZTAN – BERTIZ (NAFARROA)

Tel.: 608778006 udalekuak@navarraaventura.com

INFORMAZIO OROKORRA:

- EKINTZAK:** Udalekuan zehar hainbat multiabentura ekintza egiten dira (Aquapark naturala, Piraguismoa, Tirolinak, Ferrata bidea, Abentura parkea, Ibilbideak...). **Ekintza guztiak adin ezberdinetara egokituta daude, beraz, udalekuan parte hartzen ahal duten haurrek (7 -15 urte bitarte) inolako arazorik gabe egin ditzazkete.**
- BEGIRALEAK:** Udalekuan parte hartuko duten haurrek denbora libreko begiraleak izango dituzte, beraiekin udaleku osoan zehar egongo direnak eta begirale hauetaz gain, udalekuan burutuko dituzten ekintzetan espezializatu eta titulaturako begiraleak izango dituzte ere.
- ADINA:** Txanda guztiak 7 eta 15 urte bitarteko haurrei zuzenduta daude. Normalean adinaren arabera banatuko zaie: 7-11 urte eta 12-15 urte.
- PREZIOA:** 410 euro. Familia ugarietako edo guraso bakarrek familiei % 10eko deskontua egiten zaie. Kontu bat duten edo Rural Kutxan irekitzen dutenei 50 € itzuliko zaizkie kanpalekuaren amaieran, justifikatu ondoren..
- Sartzen da: 5 pentsio oso, barne desplazamenduak, aisialdiko begiraleak, abentura kiroletako begiraleak, ekintzak material guztiarekin, R.C. eta Asistentzia aseguruak.

Antolakuntzak Iruñetik eta Donostiatik autobusa dohainik jarriko du baldin eta probintzia bakoitzatik gutxienez 30 haur elkartzan badira txanda bakoitzeko, eta gauza bera Bilbo eta Gasteizko kasuetan. Azken bi hiri horietatik txanda bakoitzean gutxienez 30 pertsona elkartzan ez diren kasuetan, autobusa Iruñean eta Donostian hartzeko aukera izango dute.

- TXANDAK (Gutxienezko taldea 25 lagun txanda bakoitzeko).**

EUSKARAZKO TXANDAK:

ATERPETAN

- Ekainaren 21etik-26ra
- Ekainaren 26tik-uztailaren 1era
- Uztailaren 1etik -6ra
- Uztailaren 6tik- 11ra
- Uztailaren 11tik- 16ra
- Uztailaren 16tik- 21era
- Uztailaren 21etik -26ra
- Uztailaren 26tik -31ra
- Uztailak 31tik-abuztuak 5era
- Abuztuaren 5etik -10era
- Abuztuaren 10tik -21era
- Abuztuaren 21etik-26ra

- IZEN-EMATE EPEA**

2026ko martxoaren 4ko goizeko 9:00etatik aurrera plazak agortu arte.

- OHARRA: Txandak osatuz joan dira eta itxi egingo dira erreserba-plataforman bertan, www.navarraaventura.com webgunearen bidez, "2026ko kanpalekuak" sakatuz.

IZEN-EMATEA:

Izen-ematea gure web orrian egin behar da: <https://www.navarraaventura.com/udalekuak>

Izena emateko kontutan izan beharrekoak:

Izen-ematea formalizatzen ezinbestekoa da parte hartzaile bakoitzak erreserba webgunearen bidez egitea: navarraaventura.com kanpamenduen atalean, ERRESERBAK atalean, eta online ordainketa aplikazio beraren bidez egitea. Ez da inskripziorik onartuko ordaindu gabe.

- Izen-ematea taldean:** Udalekuetara datorren haur bakoitzak bere inskripzioa egin behar duen arren, taldean etortzen bazarete, formularioan atal bat aurkituko duzue non adierazi beharko duzuen zuen taldean zenbat lagun heldu zireten eta taldean etortzen zireten izen abizenak. Informazio hau guztiz garrantzitsua da guk taldea osatzeko. **Oso garrantzitsua da formularioan taldeko kide guztiak txanda eta alojamendu bera aukeratzea.**

oharra:

Inskribatzerakoan, 20 pertsona baino gehiago elkarrekin talde berdinean apuntatzen direnean, antolakuntzak bi taldetan banatzeko eskubidea izan du.

- Izen-ematearen baieztapena:** Izen-ematea ongi egiten baduzu (web orriko formularioa bete + on-line ordainketa) posta elektronikoki bat jasoko duzu zure izen-ematea baieztatuz. Posta elektronikoki hau formularioan idatzi duzun helbide elektronikora iritsiko zaizu. **Mesedez ziurtatu helbide elektronikoa zuzen idatzi duzula. Posta elektronikoki bandeda guztiak begiratzeko gomendatzen da, baita "correo electrónico no deseado" edo "SPAM"- edo "PROMOCIONES"arena ere bai. Posta elektronikoki hau jasotzen ez baduzu mesedez jarri zaitez lehen bait lehen gurekin harremanetan (Telefonoz 608 778 006. zenbakian edo Posta elektronikoki: udalekuak@navarraaventura.com)**

- Itzulpenak:** Kuota itzulpenei buruzko informazioa Baldintza orokorretan aurki daiteke.

- Itxaron lista:** Norbait lekurik gabe gelditzen bada itxaron listan geldituko da eta bajaren bat egonez gero telefonoz deituko zaio.

- Edozein galdera edo zalantza baduzu jarri zaitez gurekin harremanetan:**

TELEFONOA: 608778006 NARBART

E-MAIL: udalekuak@navarraaventura.com



MULTIABENTURA UDALEKUAK 2025 BAZTAN – BERTIZ (NAFARROA)

Tel.: 608778006 udalekuak@navarraaventura.com

JOAN ETORRIA ETA UDALEKURA EKARRI BEHARREKOAK:

• JOAN ETORRIA:

Antolakuntzak Iruña eta Donostiatik Dohainik busa jarriko du, baldin eta probintzia bakoitzatik gutxienez 30 pertsona txanda berdinerako apuntatzen badira, eta gauza bera Bilbo eta Gasteizko kasuetan. Azken bi hiri hauetatik txanda bakoitzean gutxienezko 30 pertsona elkartzen ez diren kasuetan, autobusa Donostian edo Iruñean hartzeko aukera izango dute.

• UDALEKURA EKARRI BEHARREKOAK:

- Haurraren osasun txartelaren kopia.
- Galtza luze eta motzak.
- Kamisetak.
- Txandala.
- Txubaskeroa.
- Jertsea edo forro polar fina.
- Barruko arropak, mudak eta galtzerdiak.
- Pijama.
- Kirol zapatilak eta mendiko botak (ez erosi berriak, botak ez badituzte beste zapatil pare bat ekarri).
- Txankletak dutxarako.
- Aterpean erabiltzeko zapatilla edo txankletak.
- Uretako ekintzak egiteko: Bustitzeko zapatilla zaharrak, bainujantzia eta toalla.
- Norberaren garbiketarako gauzak eta dutxarako toalla.
- Plastiko edo aluminiozko Plater bat, edadontzia, goilara, xardexka eta nabala
- Txapela.
- Eguzkitarako krema.
- Motxila txikia ekintzetara eramateko.
- Lo zakua.
- Esterilla. (Gauren batean vivac egiten badute erabiltzeko).
- Linterna.
- Kantimplora.

*** Komenigarria da qazteek ekartzen duten quztia izen abizenekin markatzea eta haurrek ekipaia prestatzen laquntzea, ekartzen duten materiala hobe ezaqutzeko.**

*DIRUA: Ez dute diru askorik behar, ez baituzte behar handirik izanen, normalean egunen batean txutxeak erosteko besterik ez dute erabiliko.

*EZ DA ONARTZEN Mugikorrek, eta argazki kamerak ekartzea eta ez da gomendatzen balio handiko gauzak ekartzea ere.

*** Antolakuntza ez da arduratuko galtzen edo desagertzen diren umeen gauzetaz. Eta arropak eta gainontzekoak ahazten dituzten kasuetan itzultzerako orduan familiaren esku geldituko da porteen ordainketa.**

BALDINTZA OROKORRAK:

• BISITAK ETA TELEFONO DEIAK:

BISITAK UDALEKUAN: Ez dira onartzen bisitak baldin eta salbuespen kasu justifikatuetan aurretik gurasoek edo tutoreek idatziz eskatzen ez badute.

TELEFONO DEIAK: Udalekuaren dinamika ez hausteko telefono deirik ezingo dira egin.

- Udalekuko egunetan garrantzi handiko zerbait gertatuz gero, familia udalekuko zuzendaritzarekin harremanetan jarri ahaliko da. Kanpamenduan gorabeheraren bat gertatuz gero, antolaketa familiarekin harremanetan jarriko da. Beharrezkoa izanez gero, haurraren eta senideen arteko telefono bidezko harremana erraztuko da. Kanpamentuko zuzendariaren tef-a emango da, behar izanez gero, deitu diezaioten.

• UDALEKUA UZTEA:

Norbaitek udalekutik bukatu baino lehen aldegin beharko balu, bere guraso edo tutoreak sinatutako idatzi bat aurkeztu beharko da.

- Bestalde, antolakuntzak udalekuaren dinamika edo arauak errespetatzen ez dutenen edo gainontzekoentzat kaltegarriak diren jarrerak dituztenen kanporatzea erabaki lezake.

Izena eman duen pertsona bat kanpamentuan dagoenean (lehenengo egunetik) etxera joan nahi badu, ez da dirurik itzuliko, bertze pertsona batek har zezakeelakoz plaza hori eta ezin izan duelakoz hartu.

• DIETA BEREZIAK, ERITASUNAK ETA ALERGIAK:

Beharrezkoa da formularioan dagokion atala behar bezala betetzea eta medikuaren txostena bidaltzea.

Haurrak botika edo sendagaien bat hartzen badu, medikuaren txostenaz gain, sendagaia nola eman behar zaion idatziz adierazi beharko da. Dokumentu hau guraso edo tutoreak sinatuta egon beharko du.

• OSASUN ARRETA, LARRIALDIAK ETA GARRAIOAK:

Haurren batek udalekuan eritasun edo istripuren bat izaten badu antolakuntzak haurra osasun zentrora eramateko baimena izanen du baita medikuak agindutako sendagaiak emateko ere.

- Antolakuntzak larrialdiren bat gertatzen bada beharrezkoak diren erabakiak hartzeko eta enpresaren ibilgailuetan desplazamenduak egiteko baimena izango du. Gurasoei berehala emango zaie gorabeheraren berri.

• ARGAZKIAK ETA BIDEOAK:

Adin txikikoen irudi- eskubideen arauen exigentziak direla eta aurrean EZ DIRA ARGAZKIRIK ATERAKO kanpaldietan ezta web orrian zintzilikatuko ere. Azken egunean talde argazki bat oroitzen bat bezala emanen zaie (gurasoren batek argazkirik nahiko ez balu, erran beharko zaio antolakuntzari oharren bidez).

UDALEKUAN EGINGO DIREN EKINTZAK:

Ekintza guztiak adin ezberdinetara egokituta daude, beraz, udalekuan parte hartzen ahal duten haurrek (7-15 urte bitarte) inolako arazorik gabe egin ditzazkete.

- **Tirolina handiak:** 300-460 metro luzerako 4 tirolinaz osaturiko zirkuitua. Beartzungo arroila zeharkatzen dute alde batetik bestera.
- **Tirolina txikiak :** 40-45-50 eta 65 metro luzerako 4 tirolinaz osaturiko zirkuitua. 20 metroko alturan daude eta Beartzungo erreken gainetik doaz.
- **Arroil-aquapark naturala:** Aquapark natural bat da, bertan txirristak, saltoak, ferrata bide bat eta rapelak daude.
- **Ferrata bidea:** Igoera segurtasun osoz egiten da "linea de vida continua" izeneko sistemaren bidez. Ikuspegi zoragarriak.
- **Zuhaitzen arteko zirkuituak:** Zailtasun ezberdinetako ibilbideak daude (horia, berdea, gorria, urdina eta beltza), 60 joko baino gehiago eta 6 tirolina. Merkatuko segurtasun sistema berrienak ditu, "Bizitzako lerro jarraia" izeneko hain zuzen.
- **Piragua:** 2-3 lagunendako kanoak erabiltzen dira. Jeitsieran zehar piraguaren teknika ezberdinak lantzen dira. Jeitsiera Bertiz eta Narbarte edo Legasa artean egiten da.



EGITARAUAREN EREDUA:

EGUNA	GOIZA	ARRATSALDEA	GAUA
1		Zuhaitz zirkuituak	Ezagutza jolasak
2	Arroil-aquapark naturala	Tirolinak	Gaubela
3	Piragua	Mendi ibilbidea	Gaubela
4	Ferrata bidea	Ezagutza jolasak	Gaubela
5	Gyncana	Tailerra eta gaueko besta prestatu	Azken eguneko besta
6	Itzulera		

- * Ekintzen ordena txandaren arabera aldatu daiteke. Antolakuntzak arrazoi ezberdinengatik (eguraldi txarra...) egitaraua aldatzeko eskubidea izango du. Era berean, taldearen eta baldintza atmosferikoen arabera, vivac bat egingo da (kanpoan lo egitea, mendiko kanpamentu modukoa) aterpetxetik 300 metrora.

